

Fisioterapia Graduko *Fisioterapiaren oinarriak* **irakasgaiaren termino-zerrenda** **eleaniztuna eta terminologiaren** **azterketa**

Gradu Amaierako Lana

Egilea:

Eneko Sáenz de Cámara Martínez de Apellániz

Zuzendaria:

Itziar San Martín Egia

AURKIBIDEA

1.Laburpena.....	1-2
2.Sarrera.....	3-4
3.Helburuak.....	4-5
4.Metodologia.....	5-7
5.Emaidzak.....	7-17
6.Eztabaida.....	17-20
7.Ondorioak.....	20-21
8.Bibliografia.....	22
9.Eranskinak.....	23-49
9.1. Glosategia.....	23-49

1.LABURPENA

Aurkezten den lan hau *Garaterm* izeneko proiektuaren eta lan-ingurunearen barruan kokatzen den *Terminologia Sareak Ehunduz (TSE)* izeneko programaren metodologian oinarritzen da. UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza fakultatean Fisioterapia Graduan irakasten den *Fisioterapiaren oinarriak* izeneko irakasgaiko terminologia jaso eta deskribatzen da. Irakasgaiko materiala erabiliz, termino erreal eta espezializatuen glosategi eleaniztun bat egin da. Lanaren helburu nagusiak dira terminologia errealetik abiatuta glosategi eleaniztun bat egitea, euskararen normalizazio bidean ekarpen bat egitea, adituen arteko komunikazio bideak erraztea eta ikasleei laguntza eskaintzea euskaraz ikasteko. Bigarren mailako helburu bezala termino hauen analisi linguisikoa egin da, arlo akademikoan egunerokotasunean erabiltzen den euskarazko terminologiaren espezializazio-maila eta konplexutasuna identifikatzeko.

Euskara normalizazio bidean dagoen hizkuntza da; hau da, hainbat arlotan garatzeko beharra dago oraindik. Arlo hauetariko bat akademikoa izan daiteke, eta lan honen bidez ekarpen bat egitea bilatzen da prozesu honetan, terminologia espezializatuaren glosategi eleaniztun bat eginez. Horretarako, *Terminologia Zerbitzurako Online Sistema (TZOS)* izeneko sareko datu-basera igoko da, nahi duen guztiak kontsultatu ahal izateko.

Goian aipatu bezala, *TSE* programaren metodologia erabili da, behetik gorakoa, arlo akademikoaren egunerokotasunean erabiltzen den terminologiatik abiatzen baita. Hasteko, *Fisioterapiaren oinarriak* izeneko irakasgaiko apunteak igo dira *Garaterm* lan-ingurunera. Ondoren, *Erauzterm* termino-erauzle erdi-automatikoaren bidez (1) terminologiaren erauzketa egin da automatikoki. Tresna horrek ematen dituen emaitzak egiaztatzeko, adituak (kasu honetan, ikasleak) eskuz egiaztatu ditu euskarazko termino guztiak. Fase horretan bigarren aukeraketa bat egin da, akats ortografikoak zuzendu eta errepikatuta zeudenak ezabatzeko; behin hori eginda, glosategia sortu da, eleaniztuna (euskara, gaztelania eta ingelesa) eta termino aldakiak ere jaso dira (hau da, kontzeptu bera erabiltzeko detektatu diren denominazio ezberdinak). Bukatzeko, azterketa linguistikoa egin da, *TZOS* plataformara igo baino lehen. Lanaren ekarpena balioztatzeko, hainbat hiztegiekin

egin da erkaketa, ikusteko glosategian jasotako terminoetatik zenbat dauden eta ez dauden jasota eskura ditugun baliabide espezializatueta: *Euskalterm*, *TZOS*, *Elhuyar ZT hiztegia*, *Erizaintza hiztegia*, *Matematika hiztegia* eta *Geologia hiztegia*. Prozesu guzti horretan ikasleak GrAL honen zuzendariaren laguntza izan du.

Balidazio guztien ostean, 451 terminoko glosategi eleaniztuna sortu da. Gehienak hitz bakarrekoak dira (% 65). Beste hiztegiekin erkaketari dagokionez, termino-bateragarritasun gehien izan dituen baliabidea Euskalterm datu-base terminologikoa izan da (% 49). Konparazio honen beste puntu esanguratsua TZOS datu-basearekin dauden bateragarritasunak aztertzea da, azken batean lan hau sareko datu-base honetara igoko baita; kasu honetan, terminoen % 40ko kointzidentzia egon da. Horrez gain, hiztegi bakoitzean agertzen diren terminoak aztertzerakoan, ikus daiteke gehienak osasun zientzien alorrean koka daitezkeela. Horrek logikoa dirudi, Fisioterapia Gradua osasun arloan kokatzen baita.

Glosategi hau *TZOS* plataformara igoko denez, aditu eta ikasleek nahi dutenean erabili ahalko dute, eta horrela haien arteko komunikazio sareak erraztuko dira. Gainera, lanaren ekarpena handia dela esan dezakegu, terminoen % 40 soilik dagoelako ikusgai datu-base honetan. Bukatzeko, etorkizunean interesgarria izango litzateke mota hauetako lanetako terminologia hiztegietan islatzea, edo behintzat aintzat hartzea terminoen inguruan erabakiak hartzeko orduan.

Gako-hitzak: terminoak, glosategi, eleaniztun, *TZOS*

2.SARRERA

Gradu amaierako lan hau UPV/EHUko Euskara eta Eleaniztasun Errektoreordetzaren babesa duen eta Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saileko irakasleek sortutako *Terminologia Sareak Ehunduz (TSE)* izeneko programaren metodologian oinarritzen da. Programa hau 2008an jarri zen abian UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren laguntzarekin, eta euskararen erregistro akademikoen garapenean dauden premia eta oztopoak identifikatu eta horiek asetzeko eta gainditzeko beharrezkoak diren pausoak emateko asmoz aritu da azken urteetan. *Garaterm* egitasmo zabalean du bere oinarria, eta bere helburu nagusietakoak dira unibertsitateko aditu-irakasleen erabilerak ikusgai egitea eta haien arteko sareak sortzea: erabiltzen diren baliabide linguistikoak partekatzea eta eztabaidatzea eta finkapenerako pausoak ematea (2). *Garaterm* egitasmoaren helburu orokorra da alorrez alorreko erregistro berezituaren garapenean eta finkapenean laguntzeko beharrezkoak diren baliabideen bilgune estrategiko bat diseinatzea (5 eta 7). Gaur egun ingurune hori ikusgai dago hurrengo helbidean: http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/

Gradu Amaierako Lan hau egiteko UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza fakultatean eskaintzen den Fisioterapia Graduko *Fisioterapiaren oinarriak* irakasgaia hartu da oinarritzat, eta bukatzerakoan *Terminologia Zerbitzurako Online Sistema (TZOS)* (2) izeneko plataformara igoko da, nahi duenarentzat ikusgai egon dadin.

Irakasleen eta ikasleen arteko komunikazio espezializatuan, joera dago kontzeptuak gaztelaniaz edo ingelesez erabiltzeko. Euskaraz, aldiz, oraindik ere erabilera mugatua da, eta maiz aldakortasuna aurkitzen dugu; hau da, jasotako terminoen denominazioak aldakorrak direlako irakaslearen arabera. Horren ondorioz, kasu batzuetan ikasleek zailtasunak izaten dituzte ikasketa-prozesuan. Besteak beste arrazoi horien ondorioz, *TSE* programan glosategi eleaniztunak (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) egiten dira, terminologia espezializatua eta errealia euskaraz jasotzeko, irakasleen arteko komunikazio sareak errazteko eta ikasleei ikasketa eta ulermena errazteko (azken finean, haiek dira etorkizuneko profesionalak).

Lan hau behetik gorakoa da; hau da, erabileran oinarritzen da, eta hortik abiatuta sortzen da glosategia. Hasieran irakasgai bateko materiala *Garaterm* izeneko

corpusera igotzen da, eta bukaeran, *TZOS* plataformara igotzen da glosategia, edonork ikusi ahal izateko. Honi esker lantzen den terminologia erreala izatea lortzen da, glosategia irakasleek egunerokotasunean erabiltzen dituzten terminoekin sortua baita.

Bestalde, euskara normalizazio prozesuan dagoen hizkuntza da; hau da, bere erabilera erregistro espezializatuetan ez dago guztiz garatuta. Izan ere, arlo akademikoan euskararen erabilera nahiko mugatuta dago oraindik (3). Adibidez, Fisioterapia Gradua euskaraz ikasi arren, termino askorekin joera dago gaztelania edo ingelesa erabiltzeko. Beraz, euskararen normalizaziorako ekarpen bat egitea bilatzen da lan honekin, ikasleak terminologia espezializatua haien etorkizuneko lanetan erabili ahal izateko.

Normalizazioaren garapenaren beste oztopo nagusia adituen arteko komunikazio-sareen urritasuna da (6). Garrantzitsua da ohartzea terminologia adituek erabiltzen dutela eta beraz, hein handi batean haien esku dagoela terminologia horren garapena. Arlo akademikora mugatzen bagara, adituak irakasleak dira. TSE programan egiten den bezala, lan honen helburu nagusia da, hizkuntzalarien laguntzarekin, erabilera erreal hori bistaratzea. Kasu honetan aditua 4. mailako ikaslea da, eta zuzendaria hizuntzalaria da.

Azaltzen den lanaren egiturari dagokionez, hasteko helburuak azalduko dira. Ondoren, metodologiaren azalpena emango da, prozedura eta materiala deskribatuz. Jarraitzeko, emaitzak aztertuko dira, hauei buruzko eztabaidarekin. Azken-aurreko pausoa lanaren ondorioen azterketa izango da, eta bibliografia eta eranskinekin bukatuko da.

3.HELBURUAK

Lan honen helburu nagusia da UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza fakultatean ikasten den *Fisioterapiaren Oinarriak* irakasgaiaren terminologia errealetik abiatuta glosategi eleaniztun osatzea eta edonork ikusi ahal izatea, *TZOS* plataformara igoz. Honen bidez, esparru akademikoan terminologia espezializatuaren erabilera errazteko ekarpen bat egin nahi da, hizkuntza-baliabideak eskainiz ikasle eta irakasleei. Batez ere arlo akademikora zuzenduta dago, unibertsitateko ikasleak

etorkizuneko profesionalak direlako. Horrez gain, adituen arteko komunikazio-sareak hobetzea bilatzen da, gaur egun hauek nahiko eskasak baitira.

Euskara normalizazio bidean dagoen hizkuntza bat denez, arlo espezializatueta urritasunak agertzen dira terminologiaren aldetik oraindik. Orokorrean, terminologia espezifikoa eta espezializatua erabiltzerakoan, joera dago ingelesera eta gaztelaniara jotzeko. Lan honekin euskararen normalizazio bide honetan ekarpen bat egitea da beste helburu garrantzitsua.

Glosategiaz gain, beste hiztegi eta baliabideekin konparazioa egin da: *Terminologia Zerbitzurako On-line Sistema (TZOS)*, *Elhuyarrek duen Zientzia eta Teknologiaren Hiztegia (ZTH)* eta *Euskalterm*. Konparazio honen helburua da ekarpena esanguratsua den ala ez jakitea, eta zeregin hori datu-base hauetako eta glosategi honetako terminoen kointzidentziak kuantifikatuz egin da. Zenbat eta bateragarritasun gutxiago agertu, orduan eta ekarpen handiagoa egingo da lan honekin, agertzen ez diren terminoak hiztegiara gehitu daitezkelako. *TSE* programari dagokionez, erkaketa esanguratsuen *TZOS* plataformarekin egindakoa da, aurreko urteetan egindako lanak datu-base honetan daudelako.

Bigarren mailako helburu bezala, termino guztien analisi linguistikoa egin da, egunerokotasunean arlo akademikoan euskaraz erabiltzen den terminologiaren konplexutasuna ezagutzeko, adibidez, erabiltzen den mailegu kopuruari dagokionez. Horrez gain, sinonimoak edo forma-aldakiak jaso dira, berebiziko garrantzia duen kontua. Izan ere, euskararen normalizazio prozesuan ezinbestekoa da erabileran dauden aldakiak deskribatzea, aldaki horien etorkizuneko erabileraren inguruan erabakiak hartu ahal izateko. Adibidez, aldaki gehiegi dauden kasuetan erabaki liteke aldaki kopuruak mugatzea.

4.METODOLOGIA

Proiektu hau egiteko, *TSE* programaren metodologia erabili da. Lan hau behetik gorakoa da; hau da, irakasleek arlo akademikoan erabiltzen duten baliabideetatik (erabileratik) abiatzen da terminologia errealeko glosategi eleaniztun bat sortzeko, ikusgai egongo dena nahi duen ororentzat. Kasu honetan, *Fisioterapiaren oinarriak* izeneko irakasgaiko materialetik abiatzen da, irakaslearen onarpenarekin (Iratxe

Duñabeitia). Irakasgai hau UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza fakultatean ikasten den Fisioterapia Graduaren lehenengo mailaren lehenengo lauhilekoan irakasten da, eta graduari zehar espezifikoki ikasiko diren kontzeptuak azaltzen dira batez ere, modu orokorrean.

Prozedurari dagokionez, hasteko, irakasgaiaren irakasleak bere irakasgaiko materialaren bilketa (power point-ak, eskemak, azterketak, etab.) egin du, eta *Garaterm* corpusera igo ditu. Hurrengo pausoa terminologia erazteak izan da, *Erauzterm* izeneko termino-erazte erdi-automatikoaren bidez. Erazte horrek termino-zerrenda bat ateratzen du estrategia linguistiko eta estatistikoaren bidez (1). Erdi-automatikoak izanik, aditu batek egiaztatu behar du zerrenda hau, soilik termino espezializatuak eta izenak kategoriakoak hautatzeko eta akats ortografikoak dituzten terminoak zuzentzeko. Kasu honetan, arloan aditua ikaslea da eta eskuz birpasatu du termino-zerrenda osoa banan-banan. Lehenengo aukeraketaren ondoren, termino guzti horiek Excel orri batean taula batean jaso dira, eta lan honen zuzendariaren laguntzarekin bigarren gainbegiraketa egiten da.



Behin hori bukatuta, glosategi eleaniztuna sortu da. Kasu honetan, termino bakoitzaren balioak jarri ditu irakasleak, gaztelaniaz eta ingelesez. Horrez gain, forma-aldakiak edo sinonimoak detektatzen dira eta beste zutabe batean jaso dira. Horrez gain, hainbat hiztegiarekin egin da konparazioa, lan honen ekarpen erreala baloratzeko. Beste hitz batzuetan, aztertu da glosategian jaso diren terminoetatik zenbat dauden sarean eskuragarri ditugun baliabide espezializatuak. Aztertutako baliabideak honako hauek dira: *TZOS*, *ZTH*, *Euskalterm*, *Zuzenbide hiztegia*, *Erizaintza hiztegia*, *Matematika hiztegia* eta *Geologia hiztegia*. Hauen artean, *Zuzenbide hiztegia* ez da aurkitu ia kointzidentziarik (bakarra izan da). Horrez gain, *TZOS*, *ZTH* eta *Euskalterm* datu-baseetan termino bakoitzean zein alorrean agertzen den aztertu da: *Osasun zientziak*, *zientzia teknologikoak*, *fisika*, *zientzia juridiko* eta *zuzenbidea*, *bizitzaren zientziak*, *kimika*, *matematika*, *ekonomia zientziak*, *hurraren eta espazioaren zientziak*, *filosofia*, *geologia*, *nekazaritzaren zientziak*, *arten eta letren zientziak*, *hizkuntzalaritza*, *psikologia*, *etika*, *zientzia politikoak*, *komunikazioaren zientziak* eta *historia*.

Hurrengo urratsa terminoen analisi linguistikoa izan da, terminoen profil linguistikoa ezagutzeko. Alde batetik, termino bakoitzaren hitz kopurua aztertu da; laburrenak hitz bakarrekoak dira (gehienak), eta luzeenak, aldiz, 4 hitzez osatuta daude. Beste alde batetik, termino bakoitzaren analisia egin da. Hitz bakarreko terminoen kasuetan, izenen azterketa egin da, eta hainbat hitzetako terminoen kasuan, aldiz, hitz bakoitzaren gramatika-kategoriaren arabera sailkatu dira.

Lan honen azkenengo pausoa *TZOS* plataformara igotzea da, nahi duten profesional eta ikasle guztiek eskuragai izateko. Datu-base terminologiko honek arlo akademikoan egunerokotasunean erabiltzen den terminologia bildu, ikusgai bihurtu eta partekatzea bilatzen du. Beste helburu bat unibertsitatean euskaraz erabiltzen den terminologiaren finkapenean ekarpena egitea da, idatzizko eta ahozko komunikazio akademikoan erabiltzen diren termino errealetik abiatuta (2).


5.EMAITZAK

Materiala *Garaterm* corpusera igo eta *Erauzterm* bidezko erauzketaren ondoren, termino kopurua 4428 izan da. Ikasleak eskuz eta banan-banan egindako balidazioaren ondorengo kopurua 593 izan da. Ikaslearen eta lanaren zuzendariaren arteko azterketaren ostean lortutako kopurua 451 (%10) izan da, eta zenbaki hori izan da behin betikoa. 214 termino ez dira agertzen aztertutako hiztegietan (% 48), eta 237 termino (% 52) gutxienez hiztegi batean agertzen dira (**1. irudia**). Aztertutako 4 baliabide nagusi guztietan errepikatzen diren terminoak 81 (% 18) dira (**2. irudia**). Beste alde batetik, forma-aldaki gehien dituen hizkuntza euskara da, gaztelaniaz ondoren eta gutxiena, aldiz, ingelesa da (**3. irudia**).

1. irudia: Baliabideren batean agertzen diren terminoak eta ez direnak agertzen**2. irudia: Aztertutako 4 baliabide nagusietan (guztietan) agertzen diren terminoak****4 hiztegieta erreplikatu**

3. irudia: detektatutako forma-aldakiak hiru hizkuntzetan

Forma-aldakiak




Aurretik aipatu den bezala, lan honetan eginkizun garrantzitsua da beste datu-base eta hiztegiekin erkaketa egitea, lan honen benetako ekarpena zein den jakiteko. Aztertutako hiztegi eta datu-baseak honako hauek dira: *Euskalterm*, *TZOS*, *ZTH*, *Erizaintza hiztegia*, *Matematika hiztegia* eta *Geologia hiztegia*. Proiektu honekin bateragarritasun gehien dituen *Euskalterm* izan da, 222 terminorekin (termino kopuru totalaren % 49). Bestalde, lan hau *TZOS* plataformara igoko denez bukatzerakoan, esanguratsua da datu-base honekin dauden kointzidentziak; gure kasuan 182 termino (% 40) errepikatzen direla ikusi da. Hurrengoa *ZTH* da, 171 terminorekin (% 38). Jarraian, *Erizaintza hiztegia* 132 (% 29) termino-kointzidentzia aurkitu dira, eta azken aurrekoa *Matematika hiztegia* izan da 53 terminorekin (% 13). Bat-etortze gutxien dituen hiztegia *Geologia Hiztegia* da (33 termino, % 7) (**1. taula** eta **4. irudia**). Kontuan hartu behar da termino bera datu-base batean baino gehiagotan ager daitekela; hau da, aurretik azaldu diren portzentaje guztiak 451 termino kopurutik abiatuta kalkulatu daude. Horrez gain, lehenengo hiru datu-baseetan hainbat arlotan sailkatu dira hitz guztiak.

1. taula: Datu-base eta hiztegi bakoitzak lan honekin dituen termino-kointzidentziak

<u>Datu-basea</u>	<u>Termino kopurua</u>	<u>Portzentajeak</u>
<i>Euskalterm</i>	222	%49
<i>TZOS</i>	182	%40
<i>ZTH</i>	171	%38
<i>Erizaintza</i>	132	%29
<i>Matematika</i>	53	%12
<i>Geologia</i>	33	%7
GUZTIRA	451	

4. irudia: Baliabide bakoitzean agertzen den terminoen kopurua



Euskalterm datu-baseari dagokionez, honako arlo hauetan sailka daitezke termino-bateragarritasunak: osasun zientzietan 104 termino (% 47), ekonomia zientzietan 79 termino (% 36), zientzia teknologikoetan 59 termino (% 27), bizitzaren zientzietan 38 termino (% 17), zientzia juridiko eta zuzenbidean 35 termino (% 16), hizkuntzalaritzan 34 termino (% 15), fisikan 33 termino (% 15), arteen eta letren

zientzietan 32 termino (% 14), psikologian 31 termino (% 14), matematikan 27 termino (% 12), nekazaritzaren zientzietan 23 termino (% 10), lurraren eta espazioaren zientzietan 17 termino (% 8), filosofian 13 termino (% 6), kimikan 11 termino (% 5), etikan 9 termino (% 4), zientzia politikoetan 6 termino (% 3), geologian 6 termino (% 3), komunikazioaren zientzietan 6 termino (% 3) eta historian termino 1 (% 0,4) (**2. taula**).

2. taula: Euskalterm datu basean agertzen diren terminoen sailkapena alorretan

Osasun zientziak	104	% 47
Ekonomia zientziak	79	% 36
Zientzia teknologikoak	59	% 27
Bizitzaren zientziak	38	% 17
Zientzia juridiko eta zuzenbidea	35	% 16
Hizkuntzalaritza	34	% 15
Fisika	33	% 15
Arteen eta letren zientziak	32	% 14
Psikologia	31	% 14
Matematika	27	% 12
Nekazaritzaren zientziak	23	% 10
Lurraren eta espazioaren zientziak	17	% 8
Filosofia	13	% 6
Kimika	11	% 5
Etika	9	% 4
Zientzia politikoak	6	% 3
Geologia	6	% 3

Komunikazioaren zientziak	6	% 3
Historia	1	% 0,4

TZOS datu-basearen kasuan, sailkapena hurrengoa da: osasun zientzietan 121 termino (% 66), zientzia teknologikoetan 93 termino (% 51), fisikan 61 termino (% 34), zientzia juridiko eta zuzenbidean 56 termino (% 31), bizitzaren zientzietan 43 termino (% 24), kimikan 28 termino (% 15), matematikan 25 termino (% 14), ekonomia zientzietan 20 termino (% 11), lurraren eta espazioaren zientzietan 10 termino (% 5) eta filosofian termino 1 (% 0,5) (**3. taula**).

3. taula: TZOS datu-basean agertzen diren terminoen sailkapena alorretan

Osasun zientziak	121	% 66
Zientzia teknologikoak	93	% 51
Fisika	61	% 34
Zientzia juridiko eta zuzenbidea	56	% 31
Bizitzaren zientziak	43	% 24
Kimika	28	% 15
Matematika	25	% 14
Ekonomia zientziak	20	% 11
Lurraren eta espazioaren zientziak	10	% 5
Filosofia	1	% 0,5

Azkenik, *ZTH* datu basearekin ere egin daiteke sailkapen hau: osasun zientzietan 98 termino (% 57), zientzia teknologikoetan 49 termino (% 29), bizitzaren zientzietan 33 termino (% 19), fisikan 26 termino (% 15), matematikan 23 termino (% 13), lurraren eta espazioaren zientzietan 21 termino (% 12), kimikan 9 termino (% 5), geologian 2 termino (% 1), eta nekazaritzaren zientzietan termino 1 (% 0,6) (**4. taula**).

4. taula: ZTH datu-basean agertzen diren terminoen sailkapena alorretan


Osasun zientziak	98	% 57
Zientzia teknologikoak	49	% 29
Bizitzaren zientziak	33	% 19
Fisika	26	% 15
Matematika	23	% 13
Lurraren eta espazioaren zientziak	21	% 12
Kimika	9	% 5
Geologia	2	% 1
Nekazaritzaren zientziak	1	% 0,6

Lan honetan erabilitako terminologiaren konplexutasunari dagokionez, ez da oso handia orokorrean, termino gehienak hitz bakar batez osatuta daudelako eta gehienez 3 hitzez osatutako terminoak agertzen baitira. Hitz bakarrez osatutako 309 termino agertzen dira (% 69); 2 hitzez osatutakoak, aldiz, 129 dira (% 29). Gutxien agertzen direnak 3 hitzez osatutakoak dira, 13 hain zuzen ere (% 3) (**5. taula** eta **5. irudia**).

5. taula: terminoen sailkapena hitz kopuruaren arabera

Hitz 1	309	% 69
2 hitz	129	% 29
3 hitz	13	% 3

5. irudia: terminoen sailkapena hitz kopuruaren arabera




Azterketa linguistikoari dagokionez, maileguen eta sintagmazioen nagusitasuna oso nabaria da, bien artean termino guztien % 67a osatzen dute eta. Maileguen kasuan, 162 termino daude (% 36) eta sintagmazioaren kasuan, 141 termino (% 31). Hurrengoak eratorpenak dira 53 terminoekin (% 12), eta hitz elkartu eta euskal ondarekoak berdinduta daude 46 terminoekin (% 10). Gutxien ikusten direnak laburtzapenak dira, 3 terminoekin (% 0,7) (**6. taula** eta **6. irudia**).

6. taula: analisi linguistikoa

Maileguak	162	% 36
Sintagmazioak	141	% 31
Eratorpenak	53	% 12
Hitz elkartuak	46	% 10
Euskal ondarekoak	46	% 10
Laburtzapenak	3	% 0,7
GUZTIRA	451	% 100

6. irudia: analisi linguistikoaren portzentajeak




Sintagmazioen kasuan, hainbat azpitaldetan sailkatu dira, bere hitz moten arabera: *izen + adjektibo* (90 termino, % 64), *izenlagun + izen* (40 termino, % 28), *izenlagun + izen + adjektibo* (7 termino, % 5), *izenlagun + izenlagun + izen* (2 termino, % 1), *izen + adjektibo + adjektibo* (termino 1, % 0,7) eta *izen + izenlagun + izen* (termino 1, % 0,7) (7. taula eta 7. irudia). Bukatzeko, hitz elkartuak bi azpitaldetan sailkatu

dira. Nagusitasuna mendekotasunezkoentzat da, 42 terminoekin (% 91); aposiziozkoak, aldiz, soilik 4 termino dira (% 9) (**8. taula** eta **8. irudia**).

7. taula: sintagmazioaren sailkapena hitzen gramatika-kategoriaren arabera

<i>Izen + adjektibo</i>	90	% 64
<i>Izenlagun + izen</i>	40	% 28
<i>Izenlagun + izen + adjektibo</i>	7	% 5
<i>Izenlagun + izenlagun + izen</i>	2	% 1
<i>Izen + adjektibo + adjektibo</i>	1	% 0,7
<i>Izen + izenlagun + izen</i>	1	% 0,7
GUZTIRA	141	% 100

7. irudia: sintagmazioaren sailkapena hitzen egituraren arabera




8. taula: hitz elkartuen sailkapena

Mendekotasunezkoak	42	% 91
Aposiziozkoak	4	% 9
GUZTIRA	46	% 100

8. irudia: hitz elkartuen sailkapena

Hitz elkartu motak



6.EZTABAIDA

Behin emaitzak lortuta eta azalduta, zenbait ideia eta hausnarketa interesgarri atera daitezke, proiektu honen ekarpena ebaluatzeko eta etorkizunean egin beharreko lanaren inguruan gogoeta egiteko.

Erauzterm termino-erazle erdi-automatikoak irakasleak emandako material osotik 4428 termino atera ditu guztira, eta ikaslearen eta lan honen zuzendariaren arteko baztertze-elkarlanaren ondoren, geratu den termino-kopurua 451 da. Ikus daitekeen bezala, bazkerketa oso handia da (soilik % 10 erabili da glosategia egiteko). Azken finean, arlo honetan aditua ikaslea da; beraz, lan mota hauetan oso garrantzitsua da

ikasle eta zuzendariaren arteko elkarlan hau, honi esker lortutako glosategia kalitatezkoa eta zuzena izateko.

Aurretik azaldu den bezala, beste datu-baseekin erkaketa egiterakoan, kointzidentzia gehienak *Euskalterm* (222 termino, % 49), *TZOS* (182 termino, % 40), *ZTH* (171 termino, % 38) eta *Erizaintza hiztegia* (132 termino, % 29) dira. Beste alde batetik, bateragarritasun gutxienak hiztegi hauekin agertzen dira: *Matematika* (53 termino, % 12), eta *Geologia* (33 termino, % 7) (**1. taula** eta **4.irudia**). Emaitza hauek ikusita, bi hausnarketa nagusi atera daitezke. Alde batetik, ofizialak diren baliabideetan jasotako euskarazko terminologia oraindik ere urria da; eta beste alde batetik, zenbaki hauek zentzuzkoak dira, aztertutako irakasgaiaren alorra kontuan hartuta. Euskarazko terminoak izanda, aipatutako lehenengo hiru hiztegiekin kointzidentziak egotea derrigorrezkoa dirudi; eta logikoa da *Erizaintza hiztegian* ere hitz hauetako batzuk agertzea, bi adarrak osasun arloan kokatzen baitira. Zenbaki hauen artean, harrigarria izan daiteke *Geologia hiztegiarekin* dauden kointzidentziak, baina zentzua izan dezake: izan ere, adibidez, tratamenduetan erabiltzen diren agente fisikoak agertzen dira (izotza, esate baterako), eta bestalde, hitz polisemikoak ere badaude, lurrarekin zerikusia izan dezaketenak (errotazioa, ardatza, etab.), adibidez.

Hiztegiak aztertuz, 451 terminoetatik 214 (**1. irudia**) ez dira agertzen inolako datu-baseetan; hau da, jasotako ia terminologiaren erdia (% 48) ez dago bilduta hiztegietan. Honek, datu-base eta hiztegietan sarrerak berrikusteko beharra iradokitzen du: izan ere, maiz gertatzen zaigu Euskalterm bezalako baliabide batean ezezagunak diren aldakiak agertzea, eta aldiz, ez agertzea erabileran bizirik dauden terminoak.

Lan honen beste erabilpen bat hizkuntzalarien eta adituen arteko elkarlana sustatzea da, eta honen beharra ikusgai dago aurreko datuekin. Hizkuntzalariek bakarrik ezin dute termino espezializatuen inguruan erabaki, ez baitute ezagutzen alorrez alorreko terminoen balio espezializatuak. Bestalde, terminoen zuzentasuna bermatzeko garrantzitsua da hizkuntzalarien laguntza izatea.. Beraz, oso garrantzitsua da hizkuntzalarien eta adituen arteko elkarlana, euskararen normalizazio prozesua azkartzeko.

Terminologiaren arloak aztertzerakoan, ikusten da gehienak osasunaren zientzietan kokatzen direla. Bigarren maila batean zientzia teknologikoak, bizitzaren zientziak edo fisikaren arloak koka daitezke. Alde honek ere logikoa dirudi, azken finean Fisioterapia osasun arloko adar bat baita.

Konplexutasunari dagokionez, termino gehienak hitz bakar batez osatuta daude (309 termino, % 69); bi hitzez osatutakoak 129 (% 29) dira, eta 3 hitzez osatutakoak gutxienak dira, 13 termino hain zuzen ere (% 3) (**5. taula** eta **5. irudia**). Beraz, konplexutasuna txikia dela esan daiteke. Horrez gain, kontuan hartu behar da terminologia hau arlo akademikoan erabiltzen den materialetik atera dela; hau da, ez dira doktorego-tesietan edo oso espezializazio-maila altuko aldizkarietan aurki dezakegun terminoak. Horrez gain, aztertutako irakasgaia Fisioterapia Graduaren lehenengo mailan ikasten da; beraz, ulergarria da irakasleak terminologia sinpleagoak erabiltzea, ikasle hauek oraindik ez direlako adituak gai espezifikotan.

Analisi linguistikoari dagokionez, nabaria da maileguen presentzia, 162 terminorekin (% 36). Hurrengoak sintagmazioak dira, 141 terminorekin (% 31), eta ondoren eratorpenak datoz 53 terminorekin (% 12). Hitz elkartu eta euskal ondarekoak berdinduta daude, bakoitza 46 terminorekin (% 10). Bukatzeko, 3 laburtzapen daude (% 0,7) (**6. taula** eta **6. irudia**). Hemendik atera daitekeen ondorioa honako hau da: terminologia espezializatua erabiltzen denean, joera dago oraindik gaztelania edo ingelesetik eratorritako denominazioetatik abiatzeko, finkatuta dauden aukerak direlako hizkuntza horietan. Horrez gain, euskal ondareko hitzak gorputz atalak dira batez ere; hau da, nahiko sinpleak dira. Hauek espezializazio txikikoak dira, eta terminologia espezializatuagoa erabiltzerakoan beste hizkuntzetatik hartutako maileguak erabiltzen dira gehiago, ohikoa den bezala edozein alorretan.

Sintagmazioari dagokionez, nagusitasuna bi hitzetako termino sinpleek dute: *izen + adjektibo* (90 termino, % 64) eta *izenlagun + izen* (40 termino, % 28). Egitura konplexuagoak oso gutxi agertzen dira: *izenlagun + izen + adjektibo* (7 termino, % 5), *izenlagun + izenlagun + izen* (2 termino, % 1), *izen + adjektibo + adjektibo* (termino 1, % 0,7) eta *Izen + izenlagun + izen* (termino 1, % 0,7) (**7. taula** eta **7. irudia**). Zenbaki hauek ikusita, berriz ere terminologiaren konplexutasun baxua argi eta garbi ikus daiteke. Bukatzeko, hitz elkartu gehienak mendekotasunezkoak dira (42

termino, % 91), ohikoa den bezala, eta aposiziozkoak soilik 4 (% 9) dira (**8. taula** eta **8. irudia**). Izan ere, medekotasunezko hitz elkartuak egiteko aukera ia beti dugu euskaraz gaztelaniaz *Izena+Adjektiboa* bezalako Sintagmazioetan (muskulu-unitate/unidad muscular) edo *izen+izenlagun* segidetan (proliferazio-fase/fase de proliferación).

Lan honen beste helburu garrantzitsuenetariko bat glosategi honek euskararen normalizazio prozesuan laguntzeko egin dezakeen ekarpena baloratzea da. Alde hau *TZOS* datu-basearekin egindako erkaketarekin ikus daiteke, plataforma honetara igoko baita bukatzerakoan. Konparazio hau egiterakoan, 182 termino (% 40) errepikatu dira; hau da, 269 termino (% 60) berri izango ditu plataforma honek lan honekin. Beraz, ekarpena nahiko handia dela ondoriozta daiteke, eta hau lan honen justifikazio bezala erabil daiteke. Beste ondorio bat da *TZOS* plataforman ekarpen gutxi daudela momentuz; hau da, euskara normalizatzeko eta terminologia espezializatua arlo akademikoaren egunerokotasunean modu egokian erabiltzeko mota hauetako lan gehiago egitea oso interesgarria izango litzateke, beste irakasgai batzuen testuinguruan.

7.ONDORIOAK

Glosategia aztertu ondoren, hainbat ondorio atera daitezke, batez ere hasierako helburuekin konparatuz eta etorkizunean landu beharreko puntuak zehaztuz.

Proiektu honen helburu nagusia euskarazko terminologia akademikoan ekarpen bat egitea zen, aditu eta ikasleentzat erabilgarria izango dena. Lan honetan 451 terminoz osatutako glosategi eleaniztuna egin da, *Fisioterapiaren oinarriak* izeneko irakasgaiaren materialetik abiatuta, eta *TZOS* datu-basera igo da, nahi duen guztiak eskuragai izateko. Beraz, helburu hau bete dela esan dezakegu, arlo akademikoaren egunerokotasunean erabiltzen den terminologia jaso delako. Esparru honetara bideratuta dago unibertsitateko Fisioterapia ikasleak etorkizuneko profesionalak izango direlako.

